**Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1922'ko Ilbeltza' ren 26'an.**

Leŕoz datozen euskaltzain abek bildu ziran: Azkue, maipuru, Eleizalde - Kanpion - Lakonbe - Landeŕetxe - Intza - Altube - Olabide - Intzagarai; urgazlerik batez.

1. *Ikeŕ-sail*eko Batzoŕdeak dakaŕen asmo bat Euskaltzaindia'k zuzenetsi du. Asmo ori auxe da: euskal-idaztiyetako *aditz-jokerak* pilotzea. Eleizalde jaunak *Joannes Etxebeŕi* - en idaztiyetatik 500 'bat aditz-jokera ekaŕiko dituela, diyo. Kanpion jaunak *Axulaŕ*'enak azteŕtuko ditu—Olabide jaunak *Leizaŕaga* ta *Mendiburu*'nak — Lakonbe jaunak *Ohienart*' enak — Altube jaunak *Mogel*'renak — Landeŕetxe jaunak *Laŕegi*'ren testamentua, ta aita Intzak *Joakin Lizaŕaga*-renak.

2. Auŕeko batzaŕaldi batean erabaki bezela, bidali zaye Bizkai'ko auzo-eŕiko apaizai, euskeraren alde egin dezatengo eskaria, ta Laukarizko apaiz jaunak erantzun du, Euskaltzaindia'ren asmoak antxe betetzen dirala, ta Bizkai'ko aldun batzuek, orain egun gutxi, egin duten ikeŕaldi batean, ontzat eman dutela euskeraren aldezko jaŕdun orixe.

3. Maipuruak Urkijo jaunaren idazki bat irakuŕi du: idazki oŕtan dasa Duke de Miranda jaunarekin egon dala, Lhande euskaltzañaren alde zerbait atontzeko; bañan *Ministro* bategana jotzea obe litzakela. Maipuruak Maura jaunari idatziko diyola ageŕtzen du, ta Euskaltzaindia'k bayetz erantzun diyo.

4. *Euskera* gure aldirozkoaren zuzentzale iza-

teko, Euskaltzaindia'k Nazario Oleaga jauna izendatu du.

5. *Euskera* auxe iru iḹabetetik beingoa, auŕerantzean, izango da: Arpidearen saneuŕi: Españan 10 peseta izango da: Españatik lekore 15 peseta; 6 peseta oŕdea *Eusko-Ikaskuntza*'ko bazkideentzat.

6. *Erizkizundi Irukoitza* zabaltzeko, ta beroni dagozkiyon lanak beaŕ bezela erabiltzeko, eŕi guziyetako agindari ta euskaltzaleai arauditxo bat eman zaye — Geyen lan egiten dutenen izenak Euskaltzaindia'k bere *Euskera*'n azalduko ditu. *Jaungoiko-zale— Euskal-Esnalea — Aŕgia* ta *Zeruko Aŕgia*'ri otoi egin beaŕ zaye, auxe egiteko.

7. Uŕkijo euskaltzañaren beste eskutitz bat irakuŕi da, berearen batez Zaragüeta jaunarena bidalirik. Eskutitz oyen gaya Gernikako *Congreso Vasco* da. Biyak diotena, atsegin aundiz, entzun da, ta dakaŕten erizkizuna, bigaŕko batzaŕaldian, lenbailen atontzea, erabaki da.

8. Euskaltzain buruak *afijos vascos* deritzan bere lan edeŕa irakuŕten jaŕaitu du.

Ta beste gai batzuek bigaŕko utzi-ta, batzaŕaldi oni, betiko otoitzaz, amai eman zayo.